


Zarautz



PABLO S. QUIZA

Imanol Murua alderdikidearen eskutik jaso zuen aginte makila Maite Etxanizek (EA).

EAren belaunaldi aldaketa

Amagoia Iban / Zarautz.- EA-KO Maite Etxanize izango da datorren lau urteetan Zarautzko alkatea. Bere alderdiaren sei botoak eta EAJ-ren hirurak jaso zituen atzo, eta gehiengo osoa lortu. EHko zinegotziek boto zuria eman zuten. Hitza eman zientean adierazi zuten, herriko bigarren indar politikoa EH izanik, EA eta EAJk udal gobernutik kanpo utzi dute. Horrela EA eta EAJk gobernuaren beren eskuetan eduki nahi

izan dutela salatu zuten EHkoek.

Hala ere, EAn eta EAJn bestela pentsatzen duen jendea bada ere gaineratu zuten, eta horregatik itxaropentsu daudela Zarautzko EHn.

PSE-EEK bere hautagaia aurkeztu eta bi botoak eman zizkion. Esan zuenez, hauteskundeetara ideologia eta asmo politiko jakin batekin aurkeztu ziren, eta horregatik atzo beren alkategaia aurkeztu zuten. PPk Za-

rautzen dituen bi zinegotziek zurian utzi zuten beren botoa.

Maite Etxanizek gero adierazi zuenez, bere tzako ohore eta ardura handia da herriko alkate izatea. Eskerrak eman zizkien denei, eta bereziki aurreko legegintzaldietan alkate izandakoei: Imanol Muruari eta Antonio Alberdiri. Legegintzaldi garrantzitsua dela eta zubiak eraikitzeke asmoa duela esanez amaitu zuen Etxanizek.

Hernani



PABLO S. QUIZA

Bederatzi zinegotzirekin, EHk gehiengo osoa du Hernaniko Udalbatzarrean.

Rekondoren agurra, EHren garaia

Erredakzioa / Donostia.- MERTXE ETXEBERRIA EHko alkategaiak hartu du gaur Hernaniko aginte makila, bere alderdiaren botoekin gehiengo osoa baitu. Euskal Herriarrok-ek, bederatzi zinegotzirekin, baka-rrik gobernatuko du Hernaniko Udalean. Bozketan izandako gainontzeko zazpi botoak zuriak izan ziren: PSE-EEKo bi eta EA-EAJ koalizioko bost. PPko zinegotzia ez zen udalbatzarrera joan.

EHko zinegotzi karguen zina Mertxe Etxeberria zerrendaburuak egin zuen denen izenean. Alkate izendatua izan ondoren, Etxeberriak Euskal Herriko demokrazia izan zuen gaitzat, eta Udal ireki bat eratu nahi duela gaineratu zuen. PSE-EEKo zinegotziek, berriz, Konstituzioa eta Estatutua defendatzeko zina egin zuten.

EHko zinegotzien artean izan zen Joxe Ja-

bier Zabaleta Elozegi preso, eta iritsitakoan aureskua dantzatu zioten. Zabaletaren ondoan zegoen Kepa Miner preso ohia, ostira-lean Kode Penaleko 92. artikulua aplikatu ondoren aske geratu baitzen. Minerrek ilusio handia zuen atzo Zabaletarekin udaletxean egoteko, eta gero biak balkoira atera ziren kanpoan bildutako jendea agurtzera. Zabaletaren senideek gero berarekin egoteko aukera izan zuten.

Errenteria

Akordiorik ezean, PSE-EE

Jon Ordoñez / Errenteria.-

ALDERDI bakoitzak bere alkategaiaren alde bozkatu zuen atzo Errenterian. Azken 15 urteetan bezala, PSE-EEK izango du alkate-tza: Miguel Buen izango da alkate, bere alderdiaren zortzi botoekin eta PPren biek. EHko alkategai Carlos Muruak sei boto lortu zituen azkenean, EA-EAJk ez baitzion bere babesa eman. Hauteskundeetatik hona Lizarra-Garaziko alderdiak akordio bat egiten saiatu dira, baina azkenean ez da halakorik izan. EH bigarren indar politikoa da, sei zinegotzirekin, baina EA-EAJk bere hautagai Jose Ignacio Gurrutxaga nahi zuen alkate-tzan, eta ez zizkion Muruari bere botoak eman. EHk ondoren emandako prentsaurrekoan adierazi zuenez, EA-EAJk, eta batez ere Gurrutxagak (EA), Udalen Biltzarrean egoteko aukera kendu diote Errenteriarri. Udalbatzarrean izan zen Leire Pikabea zinegotzi preso. Ongi etorria egin zioten txalo eta oihu artean. Ateratzeko garaian, Pikabea atzeko atetik atera zutela eta, istiluak izan ziren. Ertzaintza jendeari oldartu zitzaion, eta gomazko piloten ondorioz gutxienez bi pertsona zaurituta gertatu ziren.

Zumarraga

EA-EAJ, gehiengo osoz

Gorka Erostarbe / Zumarraga.-

GEHIENGO absolutuz aukeratu zuten Zumarragako alkate Aitor Gabilondo, EAKoa, atzo goizeko osoko bilkuran; izan ere, EAJ-EA koalizioaren sei botoei EHko hiru zinegotzietatik batu zitzaizkien. Horrenbestez, hamazazpi boz posibleetatik, bederatzi lortu zituen EA-EAJko zerrendaburuak, EHko zinegotzien babesa jaso ondoren. Sozialisten bost zinegotziek boto zuria eman zuten, eta PPko biek nahiz IUko bakarrak euren alkategaiei eman zieten botoa.

Eguerdiko 12:00etarako jendez beterik zegoen Zumarragako udalbatzar aretoa, eta bozketa egin ondoren Gabilondo alkate hautatu zuten unea txaloz hartu zuten udal osaketa begiztatzen hurbildu ziren herritarrek, eta baita zinegotziek ere. Txaloz, halaber, azken lau urteotan alkatetza bere esku izan duen Antton Arbulu sozialistak aginte makila auzapez berriari pasatu zioneko momentua ere. Herritarrei bi gauza eskatuko dizkiela adierazi zuen Gabilondok kargu berria hartu bezain pronto: «Alde batetik, zuen laguntza edo kooperazioa; eta bestetik, nire lanarekin kritikoak izatea».

Azpeitia

Bastidaren bosgarren aldia

Enekoitz Esnaola / Azpeitia.-

IRAGARRITA zegoena gertatu zen atzo Azpeitian: alderdi politiko bakoitzak (EAJ, EH eta EAK) bere zerrendaburuari eman zion botoa, inork ez zuen lortu gehiengo osorik, eta, beraz, Jose Mari Bastida (EAJ) izango da alkate, hura izan zelako alkategairik bozkatuena ekainaren 13an. Bosgarren legegintzaldia du Bastidak herriko etxeko buru, 1985. urtetik baitago karguan (bere lehen legegintzaldian bi urte falta zirela jarri zen alkate). «Itxaropeneko garaioan» lan asko egin behar dela esan zuen: «Ezin ditugu lau urte eztabaidan pasatu, lana eginez baizik». EAJ aurreko legealdian EArekin bat eginda egon zen, baina atzo EAK ez zion babesik eskaini, eta ikusi egin beharko zer gertatuko den hurrengo asteetan. Bastidak ez badu inoren babesik erdiesten, gehiengo sinplez gobernatu beharko du, ohi ez bezala (EAJk orain zazpi zinegotzi ditu, EHk sei eta EAK lau). Dena dela, Udalaren osaketarik «irekiena» egiten saiatuko dela esan zuen alkateak.

Atzoko ekitaldian EHko eta EAKo zinegotziek «legeak behartuta» onartu zuten Espainiako Konstituzioa Estatuko funtsezko arau izatea.